

JOSE MARIA
IPARRAGIRRE



OLERKI-ERESIEN
BILDUMA

TA
ERTI-IRITZI LABURRA

Belaustegi'tar Jon Joseba'k
egiña

JULIO DE URKIJÓ'REN
LIBURUETATIK BAT

URRETXU'KO BATZARREARI DONKITUA
J.J.B.

Koldobika Rodrigez'en moldistegian egiña
Oñati'n 1933 garren urtean

IPARRAGIRRE'REN

OLERKI – ERESIEN

BILDUMA

TA

ERTI-IRITZI LABURRA

BELAUSTEGI'TAR JON JOSEBA'K
EGIÑA

1999. urtea (uztaila)
Lege-Gordailua: SS-768/99

HITZETZ'24
Galzaur kalea, 25 - 6. lokala (atzealdea)
20115 - Astigarraga

ZEKIDORRA

Iparraguire' ren olerki lanaen iritzi laburra	7
Gernikako Arbola	12
Nere amak baleki	17
Kantari Euskalduna	19
Nere Maitiarentzat	21
Agur Euzkal-Erriari	23
Gora Euskera	25
Nere etorrera lur maitera	27
Glu, glu, glu	29
Nere ongille maiteari	31
Nere izarra	33
Zugana Manuela	34
Errukarriya	36
Amerikatik urretzuako semiei	38
Anzuolako batzarrari	41
Jaungoikoa eta arbola	43
Iparragirre' ren oldozmen da urre ametza	44
Nabarra' ko euzko bazkunari	45
Oroitza	47
Galdu genduan gure moraza	49
Obian	51
Okendo-ri	53
Bezerro Bengoa, arrese, erran eta manteli' ri (Amerikatik bidaliya)	57
Elizondo' ko Batzarra eta euzkaldunen gauzik maitena	59
Lersundi gudalburuari	61

Iparragirre'ren olerkien iritzi laburra

Añ maite zitun Iparragirre euzko olerkariak fuero edo azkatasunak, mindurik arkitzen zan España'ko Jaurbatzak egindako lagi galgarriyak zirala ta Euzkel-Erriyari bere azkatasuna, bere buru-jabetza kendu ziyotelako, ta fueruen kaltesko lagi ayetzaz asarre biziya azaltzeko bere adimen argiyak “Gernikako Arbola” sortu zun; gentza ta maitasunesko ereserkiya ta ez gudazko ereserkiya, abeslariyan gogua euzko abendearen goguarekin bat egiten duna ta zugatz deuna daguan tokira gure irudimena daroyana; euzko lurraren lagi ta oitura zarrak gordetzen ditun ezaugarriya.

Zelan saritu ziyoten lan au Iparragirreri? Tolosa'ko espetxian sartu-ta. Antxe bakartasun artan, iluntasun artan, zortziko erazangarri baten izki ta eresiya idatzi zun, “Nere Amak Baleki”, azalduaz itz itunezko olerki onetan, atxilatu ondorengo gertakunak eta bete errugetasuna.

Matxindurik Iparragirre olerkari ta etorri errezeko eresigile bezela, apaiñ-apaiñ argitaldu zun “Kantari Euzkalduna” ongi edestuaz bere laguntzagabeko bititza txirua, lagun bakartzat bere zoragarriya dan gitarra zartxo bat daramala ta gizatazunak agintzen dun neurriyan bititzekua irabaziyaz, bistanu toki baten orde ludiyan alde batetik bestera dabilela.

Bere maitale kutunari diyon maitasun beruak bultzatu ta idatzi zan “Ume Eder Bat” griñ-zindo ta xamurtasunez betia, goxo-goxo biyotza ikusten duna. Esan deikegu Iparragirre’k itz egoki-egokiekin, eta anditasunakin morgoztu zula bere maitalearen izakerea; ortik dago idasle-azterlariyak jarri ta goren-goreneko maillan.

“Agur Euzkal-Erriari”, bere lurrean —esan desagun orela— biyotz zalitxuak utziaz alde egiten dun euzkotar baten agur-abestiya. Zortziko onetan añ kementzu ikutzen ditu nabaimenaren ariyak, ezta izango euzkeldunik, au entzutean Euzko-Erriyanganako maitasun-garra nabaituko eztunik.

“¡Gora Euzkera!”. Onela burutu zun Aizkibel’dar Pantzeska jauna, gipuzkuar izkuntzalari bikain bezin ospetzua goraltzeko egin zun olerkiya. Lan au ariña dalarik, biguñtasunez edertuba ta erri-eresi ezaguna da, ta beragatik entzuleak menderatzen ditu.

Iparragirre’k atzerriko lurretik bere aberriya ikusi zunian bere olerkari-izatea orañdik gaste ta jasua agertuaz abestuzun agur-abesti joriya, euzko lurrari ziyon maitasuna era onetan azalduaz:

Ara nun diran mendi maiteak
Ara nun diran zelayak
Baserri eder zuri zuriak
Iturri eta ibayak.
Endaya’n nago zoraturikan

Zabal zabalik begiak,
Ara España... lur oberikan
Ez du Europa gustiak.

“Glu, glu, glu” olerki alaya, goi xamarren jarritako sato batetik ardaua eratera antzesten **duna da** berak dun alaitasuna entzuleai ezartzen diyon olerkiya. Bere neurtizak eztira gorenenguak, baña jazten dun eresi onak mailla batzutan igotzen du, berekitasuna artuaz.

“Nere Onguille Maiteari”; “Nere Izarra”; “Zugana Manuela”; ta “Errukarriya”. Amen lau eresidun-olerki polit eta txukunak; Batek azaltzendu Argentina’ko Erkalako Iparragirre’re laguntzaliei esker ona, bestiak bere zorion-ametzaen irudi ederra, ondorenguan azaltzen du bere Manuelatzo maitiari ziyon maitetasun biziyaeren mintzoetara ta azkenenguan sendi batek bizitzeko biar duna eztulako igarotzen ditun neke ta goziak. Lan abek xamurtasunak ikuturik dauden ezkeroz atzegintasuna sartzen dute.

Olerki zoragarriya bere egikera oso ta leunagatik “Amerika’tik Urretxua’ko Semiei” bidalitakuada. Izpidez daukie jarri-ta lan au euzko olerki sailen goiko maillan antzikurtzat bezela.

Urtero Antzuola’n Dagonila’n Valdejunquera’ko gudaldi entzutetsua antzesten dute iseka antzera. Antzuolarrak, moruak menderatu ostian eren bakalduna atxilotu ta illargui

erdiko ikurriña arrapatu zuten gudaldiya. Iseka antzera ospatzen dan jai oni idatzi ziyon olerki bat; bere idazkerea utzi xamarra ba-da ere, idastera bultzatu zun maitetasuna ta garrestasuna agertzen dun olerkiyada.

Iparragirre'ren olerki saillean beste abek ere ba-dira: Jaun-Goikua eta Arbola; Iparragirre'ren Oldozmen da Urre-Ametsa; Nabarra'ko Euzko Bazkunari; Oroitza; Galdu Genduan Moraza; Obian; Okendo'ri; Becerro-Bengoa; Arrese, HerrandA Manteli'ri; ta Elisondo'ko Batzarra eta Euzkaldunen Gauzik Maitena. Aztertzen ba-ditugu seatz-seatze bederatzi olerki-lan abek, ziur-ziur ez luke batek ere igesiko akatsen batzuk arkitu gabe. Baña neurri bateraño, eskeintzen dute nabaimen indarretik sortutako berekitasuna ta bere etorrera erreza, ta ez oldozmen luzeen ondoren oson-oson itzak bere tokiyan jartzetik sortutakuak. Azkenik aitatzen detan era ua mailla-erdiko olerkariyak arretaz eta gogo beros billatzen dute.

Iparragirre'k maite izan zun bere erriya euzko oituren da lagiyen edo – nor aldeztalek ain - bat, abesti zitun bere egintza ausarditzubak, bere aintzak, bere nai biziyak eztetza gustiya irabaziyaz, bereganatuaz. Orañ ere bera degu euzko erriyaren olerkari begikua, olerkari zarretatik euzko-izate naya geyentzu betetzen duna, ta bere olerkiyak irasten dute Euzkel-Erriya maite dutenen olerki txorta on da atsegintsuena.

Abestu ba-da garrestasunez euzko usaidun
abesti bigun da alai oyek erak diralako euzko-abesti
egarriya asetuko duten edari goxua.

GERNIKAKO ARBOLA

I

Gernikako arbola
Da bedeinkatuba,
Euzkaldunen artean
Gutziz maitatuba.
Eman da zabaltzazu
Munduban frutuba;
Adorutzen zaitugu
Arbola santuba.

II

Mila urte inguru da
Esaten dutela,
Jainkoak jarrizubela
Gernikako arbola.
Zaude bada, zutikan
Orain da dembora,
Eroritzen bazera
Arras galdu gera.

III

Etzera eroriko,
Arbola maitea,
Baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntia.
Laurok artuko degu
Zurekin partia,

Pakian bizi dediñ
Euzkaldun jentia.

IV

Betiko bizi dediñ
Jaunari eskatzeko
Jarri gaitezen danok
Laister belauniko.
Eta biotzetikan
Ezkatu ezkeru,
Arbola biziko da
Oraiñ eta gero.

V

Arbola botatzia
Dutela pentzatu
Euzkal-erri guzian
Denak badakigu.
Ea bada jendia,
Dembora orain degu
Erori gabetanik
Iruki biagu.

VI

Betiko egongo zera
Uda berrikoa
Lore aintziñetako
Mantza gabekua.
Errukizaitetz bada

Biotz gurekua,
Dembora galdu gabe
Emanik frutuba.

VII

Arbolak erantzun du
Contuz bizitzeko
Eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko.
Gerrarik nai ez degu
Pakea betiko
Gure lege zuzenak
Emen maitatzeko.

VIII

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
Pakea emateko
Orain eta beti.
Bai eta indarrare
Zedorren lurrari,
Eta bendiziyoa
Euzkal-erriari.

IX

Orain kanta ditzagun
Lau bat bertso berri
Gure probintziaren
Alabantza garri.

Arabak esaten du
Su garrez beterik
Nere biotzekua
Eutsiko diat nik.

X

Gipuzkoa urrena
Arraz zentiturik
Asi da deadarrez
Ama Gernikari.
Erori etzaitezen
Arrimatu neri
Zure zendogarriya
Emen naukazu ni.

XI

Ostoa berdia ta
Zañak ere fresko
Nere seme maiteak
Ez naiz eroriko.
Beartzen banaiz ere
Egon beti pronto
Nigandikan etsayak
Itsulitzareko.

XII

Guztiz maitagarria
Eta oestargiña
Begiratu gaitzazu

Zeruko erregiña.
Gerrarik gabetanik
Bizi albagiña
Oraiñdaño izan degu
Guretzako diña.

NERE AMAK BALEKI

I

Zibilak esan naute
Biziro egoki
Tolosan biar dala
Gauza erabaki.
Giltzapian sartu naute
Poliki poliki
Negar egingo luke
Nere amak baleki.

II

Jesús tribunalian
Sutenian sartu
Etziyon Pilatosek
Kulparik bilatu.
Neri ere arkitu
Ez dirate barkatu
Zergatik ez dituzte
Escubak garbitu.

III

Kartzelatik aterata
Fiskalaren etxera
Abisatu ziraten
Juateko beriala.
Ez etortzeko geyago

Probintzi onetara
Orduan artunuan
Santander – aldera.

KANTARI EUZKALDUNA

I

Gitarra zartxo bat da
Neretzat laguna;
Onela ibiltzen da
Artista euskalduna:
Egun batean pobre,
Beste batez jauna,
Kantari pasatzen det
Nik beti eguna.

II

Naiz dala Italia,
Oro bat Francia
Bietan bilatu det
Arritz malicia
Ikusten badet ere
Nik mundu guzia
Beti maitatukodet
Euskal-erria.

III

Jaunak ematen dabit
Neri osasuna,
Izango det oraindik
Andregai bat ona.
Emen badet frantzes

Interesa duna,
Baña nik naiago det
Utzik euskalduna.

IV

Agur Euzkal-Erria
Bañaez betiko
Bost edo sei urtetan
Ez det ikusiko.
Jaunari eskatzen diot
Grazia emateko
Nere lur maite ontan
Ezurrak uzteko.

NERE MAITIARENTZAT (UME EDER BAT)

I

Ez dakit nola eskerrak eman
¡Ah! nere ongille maiteak
Nere lurrera bear nau eraman
Gaur zuen borondateak;
Egin dezute zer obra ona
Aberatz eta pobreak
Orra cunplitu agintzen duana
Jesukristoren legeak.

II

Nere onerako, erriak dira
Buenos-Airesen alkartu,
Bide emanik, Correo Españolak –
Noblezaz zayo segitu
Artzeko da, bai, gaur erriak,
Nola diraden argitu,
Mundu gustian liberal onak
Adiskideak baditu.

III.

Biotz oneko jaunak badira,
Lista dutenak edertzen
Zori oneko nere zartzera
Ah! nola duten onratzen;
Munduan bada zorionikan,

Andre onak du egiten,
Gizonak izar oyetan
Zerua degu ikusten.

AGUR EUZKAL-ERRIARI

I

Gazte gaztetatikan
Erritik kanpora
Estranjeri aldean
Pasa det denpora;
Egiya alde guzietan
Toki onak badira
Baña biotzak diyo
Zuaz euzkalerrira.

II

Lur maitea emen ustea
Da negargarria
Emen gelditzendira
Ama eta erria;
Urez noa ikustera
Bai, mundu berria
Oraintxen bai naizela
Errukigarriya.

III

Agur nere biotzeko
Amatxo maitea
Laister etorriko naiz
Konsola zaitean;
Jaungoikoak nahi badu

Ni urez joatera
Ama zertarako da
Negar eguitea.

GORA EUSKERA

I

Españian da gizon bat
Bear deguna maita
Franzisko Aizkibel jauna
Euskaldunen aita:
Txit da gizon prestuba
Eta jakintzuba
Errespeteta desagun
Guk gure maitasuba.

II

Ogeita geyo urtian
Bizi, da Toledo'n
Izarraizko semia
Ez da beti lo egon;
Liburuen gañian
Beti gau eta egun,
Gure euskera maitia
Galdu ez desagun.

III

Euskaldunak gerala
Ez bada ukatu,
Eta mendiyetara
Biegu partitu,
Euskera egiten bada;

Baserri denetan,
Ondo biziko gera
Euskal erriyetan.

NERE ETORRERA LUR MAITERA

I

Ara nun diran mendi maiteak
Ara nun diran zelayak
Baserri eder zuri zuriak
Iturri eta ibayak.

Endayan nago zoraturikan
Zabal zabalik begiak
Ara España... lur oberikan
Ez du Europa guziak.

II

Gero pozik bai Donostira
Okendo-ren aurrera
Zeru polit au utzi bearra
Nere anayak ;au pena!

Iru txulueta maitagarria
Lore tokiya zu zera
Beneziaren grazi guztiyak
Gaur Donostian dira.

III

Oh, euzkalerri eder maitea
Ara emen zure semea
Bere lurrari muñ egitera

Beste gabe etorriya.

Zuregatikan emango nike
Pozik, bai biziya
Beti zureztat il arteraño
Gorputz eta anima guziya.

IV

Agur bai Donostiako
Nere anai maiteak
Bilbao-tikan izango dira
Aita zarraren berriak.

Eta gañera itz neurtuetan
Garbi esanez eginak
Sud-Amerikan zer pasatzen dan
Jakiñ dezaten erriak.

GLU, GLU, GLU

Biba Rioja, Niba Naparra
Arkume onaren iztarra
Emen guztiok anayak gera
Ustu dezagun pizarra.
Glu, glu, glu.....

II

Ardo fiña ta jateko ona
Jartzen badute gaur ugari,
Gure barrenak berdindurikan
Jarriko dira guri, guri.
Glu, glu, glu.....

III

Gure zabela bete bear da
Albada gauza onarekiñ,
Dagon lekitik jeragiñ bapo!
¡Aupa mutilak! gogoz ekiñ.
Glu, glu, glu.....

IV

Ez ikaratu dagon artean
Jan eta edan gaur gogotik,
Ustutzen bada ekarko degu
Berrero lengoko tokitik
Glu, glu, glu.....

V

Umorea da gauzik onena
Nai gabeak ditu astutzen,
Uju ta aja asi gaitean
Euskal doñuak kantatutzen.
Glu, glu, glu.....

NERE ONGILE MAITEARI

I

Ume eder bat ikusi nuben
Donostiako kalean.
Itz erditxo bat ari esangabe
Nola pasatu parian.
Gorputza zuben liraña eta
Oñak sebiltzan aidean;
Politagorik ez det ikusi
Nere begiyen aurrean.

II

Aingeru zuri pare gabea
Euzkal-erriko alaba,
Usterik gabe zugana beti
Nere biotzak narama,
Ikusi naian beti or nabil
Nere maitea jau lana!
Zoraturikan emen naukazu
Beti pentzatzen zugana.

III

Galai gasteak galdetzen dute
Aingeru ori nun dago;
Nere maitea nola deitzendan
Es du iñortxok jakingo;
Ez berak ere, ez luke naiko

Confianza orretan nago;
Amorio dun biotz oberik
Euskal-errian ez dago.

IV

Oh! zu Romero Gimenes jauna,
Nere adiskide maitea,
Zure biotz onak konsolatu du
Nere arima tristea;
Egiak dira nere ametzak,
Mendietara juatea;
Agur Romero, auda neretzat
Gozamentu eta pakea.

V

Agur zure Olaso jauna
Bizkaitar prestu noblea,
Beti betiko zure izena
Biotzetan det gordea;
Gaztetanik zait gusta biziki
Mendietako aizea,
Agur, banoa, naidet ikusi
Euskal-erri maitea.

NERE IZARRA

I

Zu zera nere izarra
Zu nere eguzkiya
Aingeruen artetik
Zerutik jatxiya.

II

Barren kalera nua
Bertan nai det bizi,
Antxen ikusiko det
Sarritan Maiñasi.

III

Nere biyotza dago
Oso penaturik,
Joan bear detalako
Laizter zure ondolik.

ZUGANA MANUELA

I

Zugana, Manuela
Nuanian pensatu
Uste det ninduala
Deabruak tentatu,
Ikusi beziñ ekiñ
Naiz enamoratu
Ojala ez baziñan
Sekulan agertu.

II

Amorioz beterik
Esperantza gabe,
Zergatik egin ziñan
Biotz onen jabe,
Zuk esan bihar zenduben
Emendikan alde
Egiyaz ez naiz ni
Bizar dunen zale.

III

Aztu nai zaitut baña
Eziñ, eziñ aztu,
Zure amoriyuak
Buruba dit galdu;
Oraiñ bigundu zenduke

Eta maitagarri orrek
Biotz ori bihundu
Piska bat lagundu.

IV

Barkatu bear dituzu
Nere errkeriak
Sure begira daude
Nere bi begiyak;
Garbi, garbi esanditut
Nere ustes egiak
Soraturikan nauka
Sure arpegiak.

V

Gabian ibilli naiz
Guzizko ametsetan
Donostian nengoela
Andre mariatetan;
Eta ikusi nubela
Erri artako plazan
Erdiyan zebilela
Manuela-txo dantzan.

ERRUKARRIYA

Aspaldien ezta gure etxean
Oguirik ikusi,
Bañan gaur txitxi ta parra
Izango da naski.
Gaur bat jana ta edana
Labirun lena
Jango otedegu dana
labirun lena.

Marto opillak egiteko
Arto eguiteko,
Aitak atzo saldu zuben
Anega bat arto.
Gaur bai...

Gure zabelak eske daude
Au da misheriya
Erdik goziak dagona
Da errukarriya.
Gaur bai...

Oso arlote bizi gera
Ezin osaturik,
Zenbat aldiz eguardiyan
Oraindik barraurik.
Gaur bai...

Talo esnea jateko gu
Gaude saletutik,

Sei talo jango nituke
Neronek bakarrik.
Gaur bai...

Pitarra ere guretzako
Izango da noski,
Gure barrena alaia
Jarriko da aurki.
Gaur bai...

AMERIKATIK URRETXUAKO SEMIEI

I

Billarreal de Urretxu
Nere erri maitea
Seme bat emen dezu
Amorioz betea.

II

Nai baña nola ikusi
Au da lan tristea
Zuretzat nai det bizi
Urretxu nerea.

III

Bi milla eta seiregun
Legua badira,
Montebideotikan
Euskal errira
Naiz esperantzeta
Etorri bagera
Aurreratasun gabe
Urriak jua dira.

IV

Bai, nere adiskideak
Bear da pensatu

Zuretzat Amerikak
Nola dan mudatu
Iñork emen eziñ du
Lanikan billatu
Oraiñ datorrenari
Bear zayo damutu.

V

Gañera izan degu
Emen ere gerra
Gure zori onean
Pakea egiñ da;
Bañan gerra ondoren
Dakar diktadura
On Lorenzo Latorre
Nagusi degula.

VI

Ez bada ez etorri
Gaur lur onetara
Il edo bizi obe da
Juatea Habanara;
Au da gure bandera
Españaren onrra
Txurrukaren semeak
Ara juango gera.

VII

Agur adiskideak

Ikusi artean
Zuenganatuko naiz
Egunen batean.

VIII

Esperantzakin bizi
Nai det bitartean
Gero ezurrak utzi
Nere lur maitean.

ANZUOLAKO BATZARRARI
MAIRUEN BANDERA

I

Nafarrak On Garcia
Errege zutela
Odolez estali zan
Bai Balde-Junkera.
Africanoak orruz...
Legoiak bezela
Zioten kristau bizirik
Utzi bear ez zala.

II

Baña Euskaldunak
Laurak-Bat aurrera!
Zioten: Fedeagatik
Danok ilko gera;
Jo! ... jó eta ez eman
Pauso bat atzera...
Gurea izan arte
Mairuen bandera.

III

Mutillak ... ara non dan
Illargi erdia,
Arrapatu dezagun
Naiz galdu bizia:

Emen degu bandera
Upa Euskal-erria!
Eta Anzuolarentzat
Onrra ta gloria.

IV

San Juan Uzarragako
Seme txit arguiak
Ziran Balde-Junkeran
Irabaz larriak;
Batzar etxean dauden
Illargui erdiak
Dira Anzuolarentzat
Txit onrra garriak.

V

Esan adiskideak
Orduan bezela
Nafarrakin gaur ere
Anaiak gerala;
Bat da gure izarra
Bat gure bandera
Esan beti Laurak-bat
Izan nai degula.

1878 garren urtean.

JAUNGOIKOA ETA ARBOLA

Amoriozko lege santuakiñ
Gorrito gabe biotzean
Iberiako gure anayakiñ
Bizi nai degu pakean.

Libertadea maite dutenak
Betoz gurekiñ batean
Kristoren legea
Errespetatzen degula
Da euskaldunen borondatea
Errien anaitasuna.

IPARRAGIRREREN OLDOZMEN
DA URRE AMETZA

I

Betiko nere religioa da
Adoratzea iru gauza,
Jainkoa, lurra ta familia
Da nere urreko ametsa.

II

Baña jau lana! lurra naieau
Pil, pil da nere biotza
Ezurrak ditut noski lurrean
Laster usteko esperantza.

NABARRA'KO EUZKO BAZKUNARI

I

Zorioneko batzar onetan
Nabarrak gure anaiak,
Bizi dirade lege onean
Gaur guztiz gizon ernayak
Guregatik on esango badu
Etorkisunak kondairak
Laurak bat beti... maite alkartu
Izan euskaldun leyalak.

II

Alkar gaitezen txiki ta aundi
Aberats eta pobreak
Maita zaiteste, esaten digu
Jaungoikoaren legeak.
Auziak utsi alde batera
Batu euskaldun guziak
Besoak zabal esaten digu
Gaur Iruña erriak.

III

Erruki zaite ¡oh, Jaun maitea!
Lagunzu Euskalerria
Bada guztiok alkartu gera
Orain beltz eta zuriya
Anai arteko guda beti da

Gutzizko negargariya
Arren anayak errespetatu
Gizon guztien biziya.

OROITZA
(1879)

I

Elizondoko uri
Eder politean
Euskalduna ugari
Bildu da pakian,
Esanez batu gara
Bai zori onean
Gorrotorik gaur ezta
Gure batzarrean.

II

Nafarren elkargoa
Burutzat degula
Zer zori onekoak
Maitatzen bagera,
Euskaldun on gustiak
Zerura begira
Ezan euskalerrria
Salbatu dedilla,

III

Munduberrian ere
Gaur euskaldun onak
Nai gabetuak daude
Biotza dutenak

Galtzen gure euzkera
Onra eta oiturak
¡Arren ez galdu doyak!
Jainkoak emanak.

IV

Nafarren bide onak
Gaur laurak batean
Da artu bear dana
Errien onean,
Euskaldun on guztiak
Betiko pakean
Eztegu nai gudarik
Anayen artean.

GALDU GENDUEN GURE MORAZA

I

Zan Mateo Benigno
Moraza on jauna
Euzkalerri guziak
Maita genduen,
Prestua, jakintsua
A zer biotz ona
Jaungoikoak zerura
Eraman ziguna!.

II

Bitoriako semeak
Ernai ta nobleak
Gutziz maita zituan
Fueroko legeak,
Galdu ziradenean
Zer naigabeak
Bizia galdu arte
Moraza maiteak.

III

Guk ere bear degu
Morazak bezela
Esan beti ill arte
Fedea degu ta
Gure Jaungoiko onak

Laguntzen digula
Noiz bat... Euskalerra
Salbatuko dala.

OBIAN

I

Euskalerria maite zuanaren
Orra nun degun obia
Lur santu ori jartzera goazen
Lore koroez betia,
Igo zan zernetara
Bitoriar prestu noblea
Bere izena gure biotzetan
Izan betiko gordea.

II

Galdu genduen gure Moraza
Baña bizi da izena
Lurak batentzat zan esperantza
Biotz nobleko gizona,
Gorde dezagun bere oroitza
Euskaldun onak baguera
Lur onegatik gure biotza
Eman Morazak bezela.

III

Amoriozko txit bide ona
Berak lur oni emana
Da euskaldunak betikoeran
Idurikatu beardana
Egun obe bat ez da urruti

Alkar maitatzen degula
Gure mendietan biziko gera
Anai maitiak bezela.

OKENDORI

I

Zeruetan jarri albanezake
Gaur Okendoren izena
aio tz guztitik jasoko nuke
Alderakedan bezela,
Baña zer lana au neretzako
Ezageraz naiz laburra
Bear bezala ondo neurtzeko
bere Kondaira ederra.

II

Ogei ta zazpi urte zituala
Zan Gipuzcoa-tar azcarra
Etsaiak larri artzen zituana
Eman ezkeru aupada
Betiko onra Españarena
Itxasoetan bakarra
Eta munduan bere aomena
Odoiaz goiti dagoena.

III

¡Zenbait ibilli eta jazarra
Cadiz-en eta Lisboan!
Errendituak zenbait gudari
Antonio-ren menpean!
Asko alditan Olandesakin

Eta mairuen artean
Bildurra zer zan ezjakin
Okendoaren biotzean.

IV

Rautauriako ontzi guztien
Agintari zan Okendo
Ibiltzen zana itxasoetan
Aizea bezin agudo
Ala jantzan Brasill aldera
Donarioz eta garboso
Esanez “goazen etsaien billa
Diran lekuan eraso”.

V

Ara nun dauden esaten zuan
Eman deiogun arpegi
Gogor... bakoitza bere lekuan
Sú... sú ill arte ez utzi
Ez oraindikan ezdu etsaiak
Nere bizkarrik ikusi
Agertuko da jazar ondoren
Emen zeñ geran nagusi.

VI

Asi ziraden sutan bertatik
Eta auspartzen aundiak
Eraso zion gogor albotik
Orduan ziran larriak

Baña Okendo beti azkarrak
Oso suturik begiak
An ekiñ zion su eta garra
Zati eginez ontziak.

VII

Olandesak an eztu artuak
Larritazunak an ziran
Geienak seatu
Itxasoren erdian
Ontziak ere su artu zuten
Ondatutzeko zorian
Okendo berazan errukitzen
Nai gabetasun aundian.

VIII

Ala dakite gizon biotz dunak
Errendituari barkatzen
Egi au bera bai euskaldunak
Gudari bada izaten
Izan gaitezen danok anaiak
Eta alkartu gaitezen
¡O! ez ibilli euskal leialak
Lurra odolez eztaltzen.

IX

Izanik garailaria
Arrotasunik ez zuan
Ala zan gure gizon aundia

Jazar lekuan berean
Burua zutik, begiak argi
Eta ezpatia eskuan
Ematen zuan beti arpegi
Argidotarren moduan.

X

Fededun ona beti izana
Eta gudari aundia beregana
Jaungoikoak deitu zuan
Gizon illezkor argia
Alabatua bere izena
Gaur zeruetan jarria
Bere gloriáz bete zuana
Betiko Euzkalerria.

BECERRO BENGEOA, ARRESE, ERRAN
ETA MANTELE'RI
(AMERIKATIK BIDALIYA)

I

Erran, Manteli, Arrese jauna
Eta Bezerro Bengoa
Badet aspaldi biotz gustitik
Esagutzeko gogua.

II

Zuek bezela ditut maitatzen
Jaungoikoa eta Fuegoak
¡Ay! baña ez nau pakean usten
Lurraren amorioak.

III

Itxaso aldera beti begira
Zabal zabalik begiak
¡Oh, Jaun maitea Zer urriñ diran
Euzkal erriko mendiak.

IV

Ara ontzi bat, goazen atozte
Nere aur polit gaisoak
Bildurrik gabe juan zaiteste
Txit maite gaitu Jainkoak.

V

Mundu zarrean nola berrian
Izan gaitezen prestuak
Gizonarentzat agiñ zituan
Ur eta lurrak Jainkoak
Zabaldu beti anaitasuna
Amoriozko kantuak
Guzientzat du itzal ederra
Gure arbola santuak.

ELIZONDO-KO BATZARRA ETA
EUSKALDUNEN GAUZIK MAITENA
(1879)

I

Zer atsegiña mendian bera
Agertzen gure anayak
Esanez emen alkartu gera
Izan euskaldun leyalak.

II

Ta ikustean gure artean
Aomen aundiko gizonak
Euskalerrriaren sorionean
Argi, maiz egin dutenak.

III

Elizondo-ko ibar luzean
Egontza eder batean
Amoriozko batasunean
Ikusi ditugu pakean,
Euskaldun onak esku emanik
Jaungoikoaren aurrean
Diotela emen gaude baturik
Lur maitearen onean.

IV

Euskalduna zan Pierre de Marti
Biotz aundiko gizona
Andiskitu nai zuana beti
Jaungoikoaren izena,
Eta gaur ere dator zerutik
Fede bizi bat gugana
Esanez beti, burua zutik
Euskaldun onak gerala.

LERSUNDI GUDALBURUARI
(AMERIKA'TIK BIDALIYA)

I

Asia, Europa eta Afrika
Bakarrik ziran denboran,
Gogorra, andia eta ederra,
Gure España zegoan;
Gero Kolon-ek zerbait arturik
Marko-Poloren liburuan,
Mundu berri bat bazalazkoa
Jarri zitzayon buruan.

II

Gauza andibat izanagatik
Mundu berri an sortua,
Baña bai ere izan ta izango
Espanñarentzat kaltea;
Nola gabilzan Jainkoak daki
Noiz egingo dan suertea
Bai, milla bider utzegin degu
Peru Españan uztea.

III

¿Zer zuten emen zelai oyetan
Española emen sartzean?
Legoi, katamotz, euli ta suge
Zapo galantak oiñ pean:

Zorigaiztoko miruak bayere
Baziran Lima partean,
Peru-ko minak izandu dira
Españarentzat kaltean.

IV

Lurrak badira mundu onetan
Gutxi dutenak balio
Gure Jainkoak Iberiari,
Lurrik onena eman dio;
Elurte asko, eguzki gutxi
Begira zenbat nazio,
Gure lur maite Españolari
Arren ¡ez esan adio!

V

Afrikan bero izugarriak,
Elur galantak Rusian,
Biotza triste... ekartzen dute
Izan diranak Asian;
Gerra, legorta, bomito-beltza,
Daukagu mundu berrian,
Ez da España bezalakorik
Eguzki-aren azpian.

VI

Mundu zarrean, gu, jayo-giñan
Utzi dezagun berria,
Gure Jainkoak maite izango du

Maite duana erria:
Gero iltzean izango bada
Deseo degun gloria,
Orain ta beti, maita dezagun,
España gure patria.

